



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

31. Ordenantza Udal Liburutegiko hainbat zerbitzu kobratzeko prezio publikoa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauarn 44. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, Udal Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoa ezarri da.

II. ORDAINDU BEHAR DUTENAK

2. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araupeututako prezio publikoa ordaindu behar dute Udal Liburutegian eskaintzen diren zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona guztiek.

III. ZENBATEKOA

3. ARTIKULUA

Prezio publikoaren tarifak ezarri dira liburutegi-zerbitzu hauetarako:

- Dokumentuak inprimatzea:

DIN A4 (zuri-beltza) 0,15 € unitateko.

DIN A3 (kolorea) 0,95 € unitateko.

DIN A3 (zuri-beltza) 0,30 € unitateko.

DIN A3 (kolorea) 1,90 € unitateko.

- Ordenagailuaren erabilera: doakoa
- Interneterako konexioa: doakoa
- Liburutegiko txartela berritzeagatik, titularrak galdu duelako edo gaizki kontserbatu duelako bada, 6,50 euro kobratuko dira.
- Ikasketa-gelako giltzak ez itzultzeagatik edo gaizki kontserbatzeagatik 19,30 €
- Armairuetako giltzak ez itzultzeagatik edo gaizki kontserbatzeagatik 43,20 €
- Maileguan hartutako liburuak, CDak eta DVDak, itzultzen ez badira edo egoera txarrean itzultzen badira, berriak erosi beharko ditu desagertzea edo hondatzea eragin duen erabiltzaileak.

IV. KUDEAKETA ETA BILKETA

4. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetan araupetutako prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzuak egiten diren unean sortuko da.

2. Prezio publikoa eskudiruz ordainduko da, zerbitzua egiten den unean.

3. Liburutegiko langileek kudeatuko dute zerbitzuaren kobrantza. Hilabetero sarrera egingo dute Kultura Sailean, eta berau arduratuko da Udal Kontu-hartzaileak beren beregi jarriko duen kontuan sarrera egiteaz.

V. AZKEN XEDAPENA

Udal Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen prezio publikoa araupetu duen ordenantza hau 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 294. alean argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.